



ESKORIATZAKO OLAZAR JUBILATUEN TABERNA-ARETOA MODU PRIBATIBOAN ERABILI ETA USTIATZEKO JABARI PUBLIKOAREN EMAKIDA ARAUTU BEHAR DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN HELBURUA.

Baldintza agiri honetan oinarrituta egiten den kontratuaren xedea izango da ESKORIATZAKO OLAZAR JUBILATUEN TABERNA-ARETOA, Udalaren titulartasuneko higiezia, modu pribatiboan erabiltzeko eta ustiatzeko administrazio-emakida, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz. Emakida hori baldintza administratiboen agiriaren, baldintza teknikoaren agiriaren eta espedientearen agertzen den dokumentazio teknikoaren arabera gauzatuko da, kontratu izaera izango dutenak.

Emakidaduna arduratuko da, gainera, taberna-aretoko zerbitzurako zuzenean erabiltzen diren instalazioak eta tresnak garbitzeaz, Jubilatuen Etxeko atezaintza-zerbitzua emateaz, karta jokorako aretoa garbitzeaz, eta eraikinaren beheko solairuan, jubilatuen etxeko tabernaren ondoan, dauden komunak garbitzeaz, jendearentzat irekita egon beharko direnak 11:00etatik 22:00etara.

Kontratuaren helburuari dagokion CPV nomenklaturaren kodifikazioa: 55330000-2 kafetegi-zerbitzuak.

2.- UDALAK ESLEIPENDUNAREN ESKU JARTZEN DITUEN BALIABIDEAK.

Eskoriatzako Udalak, lizitazio espedienteak hasitakoan, guztiz instalatuta ditu zerbitzuaren oinarritzeko funtzionamendurako beharrezkoak diren tresnak, I. eranskinean ageri den inbentarioan jasotzen direnak, tresna txiki eta produktu suntsigarriak izan ezik. Hala ere, emakidadunak, bere kontura, zerbitzurako egokitzen dituen osagaiak jarri ahal izango ditu, baldin eta horren ondorioz, instalazioetan obrarik edo aldaketarik egin behar ez bada, eta aldez aurretik Udalak horretarako baimena ematen badio.

Kontratua formalizatu aurretik emakidadunaren esku jarriko da I. eranskinean jasotako inbentarioa, emakidadunarekin egiaztatuta eta alderatuta dena.

Zerbitzuaren alde egindako hobekuntza, konponketa eta jarritako elementu higiezin guztiak, kontratua amaitzean, Udalari emango zaizkio; aitzitik, kontratua amaitzean, esleipendunak zerbitzuaren eskura jarri dituen ondasun higigarriak jaso ahal izango ditu.

Erabilera arruntaren ondorioz kontsumitutako gasa eta argindarra ordainduko ditu Eskoriatzako Udalak; dena den, bere ustez aipatutako kontsumo horiek neurritz kanpokoak badira emakidadunari kobratu ahal izango dizkio.

3.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK.

Emakidadunak zerbitzu hauek eman beharko ditu:

- Jubilatuen etxeko atezaintza zerbitzua, honako hauek hartzen dituenak:

- Jubilatuen etxeko eta kultura etxeko sarrera nagusia.
- Horietarako sartzeko bigarren atea.
- Kultura etxera sartzeko pertsiana, hala badagokio.

- Taberna eta terraza zerbitzua.

- Taberna-aretoaren ustiaketa lotuta doaz honako lan hauek: taberna eta aretoaren zerbitzuarekin zuzenean lotutako tresnak eta instalazioak garbitzea, kartetan jokatzeko aretoa garbitzea eta eraikinaren beheko solairuan, jubilatuen etxeko tabernaren ondoan, dauden komunak garbitzea. Komun horiek jendearentzako erabilgarri egon behar dira 11:00etatik 22:00etara.



- Olazar Jubilatu Etxeko karta jokorako aretoko giltzak kudeatzea. Kudeaketa hori Olazar Jubilatu Etxeko Elkartearen zuzendaritza taldearekin adostu beharko da eta beraiekin koordinatu.

- Emakidadunak, kontratuak irauten duen bitartean, arretaz bete beharko du zerbitzua, Udalak horri buruz ematen dituen arauak kontuan hartuta, eta, era berean, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun- eta elikagai-arloko arau edo xedapen guztiak bete beharko ditu.

- Era berean, konpromisoa hartzen du Udalak eta Olazar Jubilatu Etxeko Elkartek eskatutako zerbitzu bereziak emateko (luntxak, meriendak eta abar).

4.- JARDUERA ETA ORDUTEGIAK.

Eskoriatzako Udalak emakidadunaren esku jarriko ditu tabernako instalazioak, kontratua sinatu eta hurrengo 10 egunen barruan. Instalazioa, zehazki, taberna-aretoko jarduerarako erabiliko da. Udalak ustiapenerako emandako lokala, instalazioak eta ekipamendua kontratua amaitzean itzuliko zaizkio Udalari. Emakidadunak egiten dituen obrak edo instalazioak ere tokiko jabari publikora pasatuko dira kontratua amaitzean.

Udalaren eskumena izango da zerbitzuaren ordutegia ezarri eta aldatzea.

Eskoriatzako OLAZAR Jubilatuen Etxeko taberna-aretoaren zerbitzua egunero emango da ordutegi honetan: Goizeko 11:00etatik gaueko 22:00etara, eta eskubidea izango du hamabostean behin atsedeen egun bat hartzeko (berrikusgarria), Udalarekin adostuta, eta baita 4 asteko oporrak hartzeko ere, baina, ezingo dira 3 opor aste baino gehiago hartu jarraian. Urteko gainerako egunetan jendearentzat zabalik egon beharko da Taberna-aretoa.

“Atsedeen eguna” eta oporrak Udalarekin adostuko dira emakidadunak proposatuta.

Emakidadunak urtero aurkeztuko dio egutegi proposamena Udalari, urtarrilaren 30abaino lehen, Udalak ontzat eman dezan. Onartutako egutegian eta ordutegian edozein aldaketa egiteko Udalarekin adostu beharko du eta Udalaren berriarazko baimena beharko du.

5.- ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA KANONA.

Emakidadunak zerbitzuaren ustiapenetik lortzen dituen diru-sarrerak jasoko ditu, eta horien tarifak urtero onartuko ditu Eskoriatzako Udalak.

Tabernaren ustiapenaren emaitza ekonomikoak emakidadunaren arrisku eta menturakoak izango dira.

Eskoriatzako Udalak ez du bere gain hartuko esleipendunak bere hornitzaileei ez ordaintzearen erantzukizuna, ezta instalazioetan izan daitezkeen narriadura edo lapurretena ere.

Hilean 41,32 euroko + % 21 BEZari dagokion 8,68 euroko kanona ezartzen da, lizitatzailleak hobetu ahal izango duena.

Lizitatzailleak kopuru hori hobetu ahal izango du bere proposamen ekonomikoan. Hilabete bakoitzeko lehenengo bost egunen barruan ordainduko da. Ordainketa Udalak horretarako zehazten duen kontu-zenbakian egingo da. Kanona zuzenbide publikoko sarrera da. Adierazitako epean kanona ordaintzen ez bada, diru-bilketari buruzko araudian aurreikusitako errekarquak sortuko dira, eta dagozkion interesak ordaindu beharko dira. Halaber, emakida eten egingo da eta dagozkion administrazio-zehapenak ezarriko dira, baldintza administratiboen agirian ezarritakoaren arabera.

Kanona ez da berraztertuko.

Kontsumizioen prezioak ez dira, inola ere, Udalak onartutakoak baino handiagoak izango. Horretarako, 2 prezio-zerrenda ezarriko dira. Zerrenda bat jubilatutako guztiei aplikatuko zaie, eta



bestea jubilatuek ez diren gainerakoei. Gizarte Zerbitzuen eta Kirolaren batzordeak onartu beharko du Jubilatuei dagokion prezio-zerrenda eta horien aldaketak.

Udalak ezarritako prezioak urtero eguneratu ahal izango dira, esleipendunak Udalari proposatuta eta honek ontzat emanda. Prezioak jendaurrean erakutsi beharko dira, ageriko lekuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.

6.- EMAKIDADUNAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK.

1.- Emakidadunak, baldintza tekniko eta administratiboetan ezarritako garaian, orduetan eta tokietan egin beharko ditu kontratuan ezarritako lanak, eta Administrazioak kontratua interpretatzeko emakidadunari emango dizkion argibideei jarraiki. Horretaz gain, Administrazioaren berariazko baimenik izan gabe, ezin izango dio emakida osoa edo emakidaren zati bat beste pertsona bati laga.

2.- Jubilatuen etxe horretan egin beharko du lana, eta jendearentzat irekita eta etxeak dakartzan zerbitzu guztiak emateko moduan eduki beharko du, goizeko 11:00etatik gaueko 22:00etara. Hamabost egunetik behin egun bateko atsedena hartzeko eskubidea izango du.

3.- Taberna-aretoaren ustiaketari lotuta doaz honako lan hauek: taberna eta aretoaren zerbitzuarekin zuzenean lotutako tresnak eta instalazioak garbitzea eta eraikinaren beheko solairuan, jublatu etxeko tabernaren ondoan, dauden komunak garbitzea. Komun horiek jendearentzako erabilgarri egon behar dira 11:00etatik 22:00etara. Garbiketa hori gutxienez egunero egin beharko da, komun publikoak, erabileraren eta horien egoeraren arabera, maizago garbitzearen kalterik gabe.

4.- Jubilatuek eraikinaren barruan erabiltzen dituzten lokaletara sartzeko giltzen gordetzailea izango da, tabernatik kanpo dagoen sukaldeko giltzena izan ezik.

5.- Emakidadunak zuzenean eta pertsonalki bete beharko ditu kontratu honetan aipatzen diren berezko eginkizunak. Ez da inolako lan-loturarik egongo Udalarekin edo Jubilatuen Etxearekin, eta horrek emakidadunak kontrata ditzakeen langileei ere eragingo die. Kasu horretan, halaber, aipatutako langileen Gizarte Segurantzako afiliazioa izango du bere kargura.

6.- Gipuzkoako Lurralde Historikoan zergadun gisa alta emanda egotea eta zerga-betebeharrak egunean izatea, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga barne. Indarrean dagoen laneko eta Gizarte Segurantzako araudia betetzea, alderdi guztietan.

7.- Emakidadunak behar besteko giza baliabideak izan beharko ditu zerbitzua modu egokian eskaintzeko, langile horiek sortutako kostu guztiak bere gain hartuz, eta inondik inora ez dute Udalarekin lan loturarik edo lotura administratiborik izango. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango enpresaren eta bere pertsonalaren arteko harremanetatik sortutako ardurengatik.

8.- Langileak kontratatuta behar izanez gero, emakidadunak bere gain hartuko du itunpeko prestazioa emateko erabiltzen dituen langileen enpresaburu-izaera, eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako formularen bat erabili beharko du kontratuak automatikoki suntsiarazteko ustiapena azkentzen denean baldintza-agirian aurreikusitako edozein arrazoiren ondorioz.

9.- Titularra ordeztzeko baimena eman ahal izango da atsedeen-egunetan eta oporraldietan soilik, eta behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko zaie jubilatuen etxeko arduradunei eta Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Kirolak batzordeari. Esleipendunaren erantzukizuna izango da bere ordezkoa kontratatzea eta Gizarte Segurantzaren afiliatzea, eta ez du inolako lan-loturarik izango Udalarekin edo Jubilatuen Etxearekin.

10.- Gaixotasunak, istripuak, baimenak eta abar direla medio, langileren bat bajan badago, esleipendunak ordezekoak izendatu beharko ditu, horrela, zerbitzua zuzen eta kontratuan ezarritakoaren arabera eskaintzen jarraitzeko, eta hartutako betebehar guztiak bete ahal izateko. Egin beharreko ordezkapenak jakinaraziko zaizkio Udalari.

11.- Esleipendunak zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren produktuen eta gaien salmentaz arduratu beharko du. Horiek horrela, horien kalitatearen gaineko



erantzukizuna izango du. Zerbitzua betetzeko garatzen dituen lanen eta eskaintako prestazio eta zerbitzuen erantzule izango da eta baita izaten diren gabezien, akatsen, erabilitako metodo desegokiaren edota erabaki okerrearen ondorioz gertatutakoaren erantzule ere.

12.- Udalak ez du inolako erantzukizun penalik, zibilik edo beste edozein motatako erantzukizunik izango, esleipendunak ez badizkie hornitzaileei ordaintzen, hornitutako kontsumo-produktuen ondorioz edota beste edozein arrazoi dela medio toxikazioak gertatzen badira.

13.- Irratien edo antzeko tresnen erabilera doitu egin beharko da, hiritartasun-arauen barruan, erabiltzaileen eta, oro har, jendearen erosotasunagatik, betiere indarrean dagoen legerian ezarritako mugak errespetatuz. Berariaz debekatuta dago lokaletik kanpo musika-aparaturik edo antzekorik jartzea.

14.- Eskoriatzako Udalaren jarraibideak betetzea hondakinak ateratzeari dagokionez. Era berean, gordailuen, upelen, botila hutsen eta abarren zerbitzu osagarriak egoera onenean eduki beharko ditu. Zerbitzu horiek tabernaren esparruaren barruan egon beharko dute, horretarako prestatutako lekuan, eta ez dira jendeak ikusteko moduan egongo.

15.- Ustiapenaren xede den lokala eta instalazioak behar bezala eta kontserbazio-egoera onean mantentzea, eta horretarako beharrezkoak diren konponketa guztiak bere kargura izatea, betiere matxurak edo hondatzeak jardueraren funtzionamendu normalaren ondorio badira. Emakidadunak udal zerbitzu teknikoei jakinarazi beharko die, idatziz, instalazioetan gertatzen den edozein irregulartasunen berri, eta, oro har, higiezinaren narriadura eragiten duen edozein irregulartasunen berri ere eman beharko die. Horrek ustiaketa itzuli behar izatea eragin dezake, baldin eta, gertatutako anomalia motaren arabera, emakidadunaren erantzukizuna egiaztatuta geratzen bada.

16.- Kontratua indarrean dagoen bitartean hondatzen diren tabernako zerbitzuko materialak eta tresnak birjartzea eta konpontzea, bai eta lokalak, taberna-aretoko instalazioak eta komunak garbitzeko behar diren garbiketa-tresna eta -produktuengatik gastuei aurre egitea ere (komuneko papera eta gainerako produktu kontsumigarriak barne).

Erabilera desegokiaren ondorioz, emakidadunaren erantzukizuna izanda, hondatutako makineria eta altzariak birjarriko direla bermatzeko, gastu horiek estaliko dituen aseguru-poliza izan beharko du egunean. Horretarako, ustiapeneko eta patronaleko erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat sinatu eta ordainduko du, gutxienez 300.000 euroko kapital aseguratuarekin.

Kontratuak indarrean dirauen bitartean Udaleko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztuko ditu kontratatutako polizen kopia eta ordaindutako ordainagiriaren egiaztapenak.

17.- Udalaren ikuskapen teknikoa eta ekonomikoa edozein unetan baimentzea, taberna-aretoaren funtzionamendua baldintza agirian eta indarrean dauden legezko xedapenetan aurreikusitakoarekin bat datorrela egiaztatzeko.

18.- Kontratuaren xede den jarduera zergapetzen duten estatuko, autonomiako eta tokiko zerga guztiak emakidadunak ordaindu beharko ditu.

19.- Elikagaiak Manipulatzeko Titulua izatea zerbitzua ematen hasi aurretik.

20.- Ur eta zabor gastuak ordaintzea.

21.- Tabernako altzariak eta makinak (mahaiak, aulkiak, gortinak, makinak...) mantentzeko eta konpontzeko gastuak ordaintzea.

22.- Esleipendunak arretaz bete beharko du zerbitzua, Udalak horri buruz ematen dituen arauak kontuan hartuta, eta, era berean, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun- eta elikagai-arloko arau edo xedapen guztiak bete beharko ditu.

23.- Jubilatuen etxean zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztiak txukun eta behar bezala jantzi egongo dira, eta jubilatuen etxeko juntak edo Gizarte Zerbitzuek horri buruz emandako jarraibide guztiak bete beharko dituzte. Instalazioen erabiltzaileekiko tratua adeitsua eta errespetuzkoa izan beharko dute.

24.- Udalari itzuli beharreko ondasun edo instalazioak ez besterentzea edo kargatzea.



25.- Instalazioak beste jarduera batzuetarako ez erabiltzea. Baimena beharko du edariak edo gozokiak saltzeko edozein makina jartzeko eta baita txanpon-makinak jartzeko ere.

26.- Ezin izango du inolako kartel, makina edo iragarki komertzial edo politikorik jarri.

27.- Obrak egiteko Udalaren berariazko baimena beharko du.

28.- Kontuan eduki beharko du 1/2016 legea, apirilaren 7koa Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gainekoa, horrelako establezimenduetan erretzea eta 18 urtetik beherakoei alkohol-dun edaririk saltzea eta eskueran jartzea debekatzen duena.

29.- Edari alkohol-dunen, tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen seinaleztapenari buruzko 2019ko azaroaren 26ko 187/2019 Dekretuak ezartzen duen bezala, araudi horri buruzko kartelak ondo ikusteko moduko lekuren baten jarri beharko dira.

30.- Esleipendunaren kontura izango dira tabernako prentsa, aldizkariak, telebista, kanal pribatuak eta antzekoak, Interneteko zerbitzuak, eta abar.

31.- Hizkuntza betebeharrak:

- a) Hizkuntza ofizialen erabilera herritarrekin: Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, haiek aukeratutako hizkuntza ofizialean eman beharko da zerbitzua. Edonola ere, herritarrei zerbitzua emango dieten pertsonen artean, norbaitek ez baleuka zerbitzua euskaraz emateko gaitasunik, enpresa esleipendunaren ardura izango da pertsona horiei formakuntza ematea urtebeteko epean gehienez ere gai izan daitezen agurrak, prezioak, jan/edarien izenak, menuak eta lanari lotutako gutxieneko komunikazio esamoldeak euskaraz esateko eta ulertzeko. Udalak betebeharrak honen jarraipena egingo du.
- b) Hizkuntza-paisaia: errotiluak, oharrak, prezioen zerrendak, menuak eta gainerako komunikazio orokorrak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko dira, beti ere euskarari lehentasuna emanez.

32.- Berdintasun arloko betebeharrak.

Emakidadunak komunikazioa modu ez-sexistan eta inklusiboan egingo du dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan.

Beste neurri batzuei kalterik egin gabe eta berdintasunaren arloan indarrean dagoen legeriaren arabera, emakidadun izendatutako pertsona juridikoak, bere estatus juridikoa edozein dela ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatu beharko du nahitaez, eta arreta berezia jarri beharko du soldata-diskriminaziorik ez egiteko.

Zerbitzua eman behar duten pertsona guztiek errespetuzko eta berdintasunezko jarrera izan beharko dute uneoro emakume eta gizonekiko, eta ez dute jarrera gogaikarririk, iraingarririk edo diskriminatzailezik izango sexuagatik, ideologiagatik, jatorri etnikoagatik, nazionalitateagatik edo sexu-joeragatik.

7.- EMAKIDADUNAREN ESKUBIDEAK.

Lagatako ondasunak zerbitzuaren funtzionamendurako behar den moduan erabiltzea.

TABERNA-ARETO bat modu pribatiboan erabili eta ustiatzeko emakidaren esleipendun izateari dagozkion gainerako eskubideak, agiri honetan berariaz zehaztu ez badira ere.

8.- ESKORIATZAKO UDALAK ONDORENGO ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK IZANGO DITU.

1.- Udal Zerbitzu Teknikoaren bidez ustiapena fiskalizatzea. Horretarako, lokala, instalazioak eta ustiapenaren xedearekin lotutako dokumentazioa ikuskatu ahal izango ditu, eta behar den prestazioa mantentzeko eta berrezartzeko aginduak eman.

2.- Egindako arau-hausteengatik zuzenketak ezartzea emakidadunari.



3.- Emakida berreskuratzea eta zerbitzuaren ustiapena kentzea, kontratuen araudian aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.

4.- Udalak du kontratua interpretatzeko eta kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzeko eskumena.

5.- Udalak ez du bere gain hartuko esleipendunak bere hornitzaileei ez ordaintzearen erantzukizuna, ezta instalazioetan izan daitezkeen narriadura edo lapurretena ere.

6.- Iturgintza, pintura, elektrizitate eta informatikari buruzko lokalaren mantentze-lanen gastuak Udalaren kontura izango dira. Eraikinaren egiturari eragiten dioten konponketak ere Udalaren kontura izango dira.

7.- Konpondu ezin diren altzari, makina eta abarren ordezkapena Udalaren kontura izango da, betiere, dolu, erru, zabarkeria edo erabilera akastunagatik ez badira hondatu.

8.- Komunetan egin behar diren mantentze- eta konponketa-gastuak Udalaren kontura izango dira (komuneko paperaren, xaboiaren edo bestelako ondasun kontsumigarrien gastuak izan ezik).

9.- ERREKLAMAZIO-LIBURUA.

Emakidadunak erabiltzaileen eskura jarri beharko du Udalak ikus-onetsitako erreklamazio-liburua, egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izateko.



1. ERANSKINA

JUBILATUEN ETXeko TABERNAKO ALTZARIEN, MAKINARIAREN ETA OSTALARITZA TRESNEN INBENTARIOAREN AKTA **2025. URTEA**

ALTZARIAK:		
Tabernako mahaiak: 13	1 zurezko aldizkaritegia	2 koadro "Euskal Herriko perretxikoak" (koadroetako 1ek apurtuta du kristala)
Tabernako aulkiak: 23	Kristalezko 5 apal barra aldean	1 koadroa (itsas paisaia)
Barrako aulkiak: 4		
4 aterki-ontzi (2 zuri eta 2 beltz)	2 argi-foku barra aldean	TEAC-AD 500 musika ekipoa CD-casetterako, 2 bozgorailurekin
4 kakotegi 4 kakorekin	3 su-itxalgailu	Ontzi handi 1 zerrautsarentzat
1 kakotegi 3 kakorekin		
JOKOAK:		
2 karta-tapiz		
7 domino joko		

MAKINERIA:

1 pepsi hozgailua

Sukaldea:

Hozgailua

Ke-kanpaia

Termoa

OSTALARITZAKO KOPURUA **TRESNAK:**

Ur-ardo	4
edalontziak	
Ur edalontziak	4
Tutu-edalontziak	8
koñak eta vermut	9
kopak	
Txanpan kopak	1
Kafesne kikarak	12
Kafe kikarak	27
Platertxoak	32
Teontziak	3
Burruntzaliak	1
Bitsaderak	2
Kristalezko	0
hautsontziak	
Ardo edalontzi	5
txikiak	
Kaño edalontziak	9
Kafe koilaratxoak	30

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONCESION DEMANIAL PARA LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA Y EXPLOTACION DEL BAR-SALON HOGAR DEL JUBILADO OLAZAR DE ESKORIATZA

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la concesión administrativa para la utilización privativa y explotación del BAR-SALON DEL HOGAR DEL JUBILADO OLAZAR DE ESKORIATZA, inmueble de titularidad municipal, garantizando los derechos lingüísticos de la ciudadanía. Dicha concesión se ejecutará de conformidad con el Pliego de Cláusulas Administrativas, con el de Prescripciones Técnicas y con la documentación técnica que figura en el expediente que tendrán carácter contractual.

La concesionaria se encargará además de la limpieza de las instalaciones y enseres directamente destinados al servicio de bar-salón, de la prestación del servicio de conserjería del Hogar del Jubilado, de la limpieza de la sala de cartas, y de la limpieza de los aseos ubicados en la planta baja del edificio, junto al propio bar del hogar del jubilado, y que permanecerán abiertos al público durante el horario de 11:00- 22:00 horas.

Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato: 55330000-2 Servicios de cafetería.

2.- MEDIOS QUE EL AYUNTAMIENTO PONE A DISPOSICIÓN DE LA PERSONA ADJUDICATARIA

El Ayuntamiento de Eskoriatza, al inicio del expediente de licitación, tiene totalmente instalados los enseres necesarios para el funcionamiento básico del servicio, tal y como consta en el inventario recogido en el anexo 1 excepto pequeños útiles y productos fungibles, pudiendo la persona concesionaria, por su cuenta y riesgo, instalar los elementos del servicio que estime necesarios, siempre que no impliquen obras o modificaciones de las instalaciones y que, previamente, se obtenga la autorización del Ayuntamiento.

Se pondrá a disposición de la persona concesionaria el inventario recogido en el anexo 1, y se verificará y cotejará con el Ayuntamiento, previo a la formalización del contrato.

Todas las mejoras, reparaciones y elementos inmuebles introducidos a favor del servicio revertirán, al finalizar el contrato, al Ayuntamiento; por el contrario, a la finalización del contrato la persona concesionaria podrá retirar aquellos bienes muebles que haya puesto a disposición del servicio.

El Ayuntamiento de Eskoriatza pagará el gas, y la electricidad consumida como consecuencia de un uso normal, pero cuando en su opinión dichos consumos resulten excesivos, tendrá la capacidad de cobrarlos a la persona concesionaria.

3.- SERVICIOS A PRESTAR

La persona concesionaria deberá prestar los siguientes servicios:

- Servicio de conserjería del Hogar del Jubilado, que abarca:
 - la entrada principal al Hogar del Jubilado y Casa de Cultura
 - la segunda de puerta de acceso a los mismos
 - la persiana de acceso a la Casa de Cultura, en su caso.
- Servicio de bar y terraza.
- La explotación del servicio de Bar-Salón comporta además la limpieza de las instalaciones y



enseres directamente destinados al servicio de bar y salón, la limpieza del salón de cartas y la limpieza de los aseos ubicados en la planta baja del edificio, junto al propio bar del hogar del jubilado, y que permanecerán abiertos al público de 11:00 horas a 22:00 horas.

- Gestión de llaves del salón de cartas del Hogar del Jubilado Olazar. La manera de realizar esta gestión la acordarán junto con el equipo directivo de la Asociación del Hogar del Jubilado Olazar y se coordinarán con ellos.

- La persona concesionaria vendrá obligada durante el tiempo que dure el contrato a mantener un esmerado servicio atendiendo en todo momento a las normas que al respecto dé el Ayuntamiento, y asimismo deberá cumplir cuantas normas o disposiciones de carácter sanitario-alimentario se dicten para establecimientos públicos.

- Asimismo, se compromete a realizar los servicios especiales (lunch, meriendas, etc.) que le soliciten el Ayuntamiento y la Asociación Hogar del Jubilado Olazar.

4.- ACTIVIDAD A DESARROLLAR Y HORARIOS.

El Ayuntamiento de Eskoriatza pondrá a disposición de la concesionaria las instalaciones del bar, dentro de los 10 días siguientes a la suscripción del contrato. La instalación se destinará concretamente a la actividad de bar-salón. El local, instalaciones y equipamiento facilitado por el Ayuntamiento para la explotación, revertirán al mismo al término del contrato. También pasarán al dominio público local, al término del contrato, las obras o instalaciones que efectúe la persona concesionaria.

Será competencia del Ayuntamiento establecer y modificar el horario del servicio.

El servicio de bar-salón del Hogar del Jubilados “OLAZAR” de Eskoriatza se prestará diariamente en el siguiente horario:

Desde las 11 horas de la mañana a las 22 horas de la noche, teniendo derecho a descanso un día de cada quince días (revisable), sujeto a acuerdo con el Ayuntamiento, así como a disfrutar de 4 semanas de vacaciones, no pudiendo alargarse éstas más de 3 semanas seguidas. El resto del año el Bar-Salón deberá de estar abierto al público.

El “día de descanso” y las vacaciones se acordarán con el Ayuntamiento a propuesta de la persona Concesionaria.

La persona Concesionaria presentará al Ayuntamiento, antes del 30 de enero, una propuesta de calendario anual para su aprobación. Cualquier cambio en el calendario y horario aprobado deberá ser consensuado con el Ayuntamiento y requerirá autorización expresa del mismo.

5.- REGIMEN ECONÓMICO DE LA CONCESION Y CANON

La concesionaria recibirá los ingresos que obtenga de la explotación del servicio, cuyas tarifas serán aprobadas anualmente por el Ayuntamiento de Eskoriatza.

Los resultados económicos de la explotación del bar serán a riesgo y ventura de la persona concesionaria.

El Ayuntamiento de Eskoriatza no se hará responsable de la falta de pago a los proveedores, ni de los deterioros o robos que se puedan cometer por terceros en las instalaciones.

Se establece un canon de 41,32 euros mensuales + 8,68 euros correspondientes al 21% del IVA, que podrá ser mejorado por el licitador.

El licitador podrá mejorar dicha cantidad en su proposición económica. Se abonará dentro de los cinco primeros días de cada mes. El pago se realizará en el número de cuenta que al efecto determine el Ayuntamiento. El canon es un ingreso de derecho público. La falta de pago del canon en el plazo señalado devengará los recargos previstos en la normativa de recaudación, debiendo abonarse los correspondientes intereses. Asimismo, se suspenderá la concesión y se



impondrán las sanciones administrativas que procedan, de acuerdo con lo establecido en el pliego de condiciones administrativas.

El canon no será revisado.

Los precios de las consumiciones no serán, en ningún caso superiores a las aprobadas por el Ayuntamiento, para lo cual se establecerán 2 listas, una, que se aplicará a todos los jubilados y la otra que se aplicará al resto del público que no tenga condición de jubilado. La aprobación de la lista de precios correspondientes a los jubilados, así como sus variaciones, deberán tener el visto bueno de la Comisión de Servicios Sociales y Deportes.

Los precios fijados por el Ayuntamiento podrán ser actualizados anualmente, a propuesta del mismo y con su visto bueno. Los precios deberán ser expuestos al público en lugar visible y en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

6.-OBLIGACIONES ESENCIALES DE LA PERSONA CONCESIONARIA

1.- Realizar los trabajos en el tiempo y lugar fijados en el contrato de conformidad con las prescripciones técnicas y cláusulas administrativas y de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diere a la concesionaria la Administración, no pudiendo ceder, en todo o en parte, la concesión a otra persona sin autorización expresa de la Administración.

2.-Realizar su trabajo en el citado Hogar del Jubilado, debiendo mantenerlo abierto al público y en disposición de prestar todos los servicios que el Hogar entraña, desde las 11 horas de la mañana a las 22 horas de la noche, teniendo derecho a descanso un día de cada quince.

3.-La explotación del servicio de Bar-Salón comporta además la limpieza de las instalaciones y enseres directamente destinados al servicio de bar y salón, y la limpieza de los aseos ubicados en la planta baja del edificio junto al propio bar del hogar del jubilado, y que permanecerán abiertos al público de 11:00 horas a 22:00 horas, así como la limpieza del salón de cartas. Dicha limpieza deberá realizarse mínimamente a diario, sin perjuicio de que los aseos públicos deban de ser limpiados con más frecuencia en atención al uso y estado de los mismos.

4.-Será depositario de las llaves de acceso a los locales usados por los jubilados que se encuentren emplazados dentro del edificio, salvo las llaves de la cocina ubicada fuera del bar.

5.- La persona concesionaria deberá realizar directa y personalmente las funciones propias a que se refiere el presente contrato. No existirá vinculación alguna de tipo laboral con el Ayuntamiento ni con el Hogar; desvinculación que también afectará al personal que pueda contratar el adjudicatario, en cuyo caso igualmente tendrá a su cargo la afiliación de la Seguridad Social del citado personal.

6- Estar de alta como contribuyente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y al corriente de sus obligaciones tributarias, incluido el Impuesto sobre Actividades Económicas. Cumplir la normativa laboral y de Seguridad Social vigente y de Seguridad e Higiene en el trabajo en todos sus aspectos.

7.-Disponer de los medios humanos necesarios para la correcta prestación del servicio asumiendo todos los costes derivados de la relación de dependencia de dicho personal, que en ningún caso tendrá vinculación de naturaleza administrativa o laboral con el Ayuntamiento quedando este último exonerado de cualquier responsabilidad que pudiera derivarse de las relaciones entre la empresa y el repetido personal.

8.- La persona concesionaria asume el carácter de persona empresaria del personal que emplee para la prestación del concertado, viniendo obligada a utilizar alguna de las fórmulas previstas en la legislación vigente, que permitan la resolución automática de aquellos contratos al extinguirse la explotación en cualquiera de las causas previstas en el pliego, en el supuesto de necesitar contratar personal.

9.- Podrá autorizarse la sustitución del titular, por la persona ajena únicamente los días de descanso y período de vacaciones, debiendo comunicarlo, con suficiente antelación, tanto a los responsables del Hogar como a la Comisión de Servicios Sociales y Deportes del



Ayuntamiento. La contratación y afiliación de la persona sustituta en la Seguridad Social será responsabilidad de la persona concesionaria, y no tendrá vinculación laboral alguna con el Ayuntamiento o con el Hogar.

10.- En caso de bajas por enfermedad o accidente, permisos, etc., de las personas empleadas, la persona adjudicataria deberá nombrar sustitutos de manera que el servicio se siga prestando de manera correcta y acorde a lo establecido en el contrato y se puedan cumplir todas las obligaciones adquiridas. Se deberá informar previamente al Ayuntamiento de las sustituciones a efectuar.

11.-La persona adjudicataria deberá encargarse de la venta de los productos y artículos necesarios para garantizar el correcto funcionamiento del servicio. Por ello, será responsable de la calidad de los mismos. Será responsable de los trabajos que desarrolle para el cumplimiento del servicio y de los servicios prestados, así como de lo ocurrido como consecuencia de deficiencias, errores, métodos inadecuados o decisiones incorrectas.

12.-El Ayuntamiento no tendrá responsabilidad penal, civil o de cualquier otro tipo si el/la adjudicataria no realiza los pagos a los proveedores, se producen intoxicaciones por productos de consumo suministrados y/o por cualquier otra causa.

13.- El uso de radios o instrumentos similares deberá graduarse por la comodidad de las personas usuarias y público en general, dentro de las normas de urbanidad, salvaguardando en todo caso, los límites establecidos en la legislación vigente. Queda expresamente prohibido instalar un aparato de música o similar fuera del local.

14.- Cumplir las instrucciones del Ayuntamiento de Eskoriatza en todo lo relativo a la retirada de desperdicios. Asimismo, deberá tener en el mejor estado los servicios accesorios de depósitos, barricas, botellas vacías, etc. los cuales deberán permanecer dentro del recinto del bar en el lugar habilitado para ello, y no se hallarán visibles para el público.

15.- Mantener el local objeto de explotación y sus instalaciones en buen uso de funcionamiento y en perfecto estado de conservación, siendo de su cargo cuantas reparaciones sean necesarias para tal fin, siempre y cuando la causa derive del normal funcionamiento de la actividad. La concesionaria vendrá obligada a poner en conocimiento de los Servicios técnicos municipales por escrito cualquier anomalía que se produzca en la explotación, y en general, cualquier irregularidad que provoque un deterioro del inmueble, lo que podrá dar lugar a la reversión del mismo, en los supuestos en que quede acreditada la responsabilidad del concesionario en función del tipo de anomalía producida

16.- La reposición y reparación del material y utensilios del servicio del bar que se deteriore durante el período de la vigencia del contrato, y asimismo los gastos por útiles y productos de limpieza que se precisen para la limpieza de los locales, instalaciones destinadas al Bar-Salón y para los aseos (incluye papel higiénico y demás productos consumibles).

A fin de garantizar la reposición de la maquinaria y mobiliario en caso de responsabilidad de la persona concesionaria surgida como consecuencia del uso no adecuado, deberá tener al día la póliza de seguro que cubra dichos gastos. A tal efecto suscribirá y abonará una póliza de seguro de responsabilidad civil de explotación y patronal con un capital asegurado mínimo de 300.000 euros.

Durante la vigencia del contrato presentará en los Servicios Sociales del Ayuntamiento tanto la copia de las pólizas contratadas como justificantes de los recibos satisfechos

17.- Permitir en cualquier momento la inspección técnica y económica del Ayuntamiento, a fin de comprobar que su funcionamiento se ajusta a lo prevenido en el Pliego y a las disposiciones legales vigentes.

18.- Todos los tributos, tanto nacionales, autonómicos como locales, que graven la actividad objeto del contrato, serán de cuenta y cargo de la persona concesionaria.

19.- Estar en posesión del Título de Manipulación de Alimentos.

20.- El abono de los gastos de agua y basuras



21.- El abono de los gastos de mantenimiento y reparación de los muebles y maquinaria del bar (mesas, sillas, cortinas, maquinaria...)

22.- Mantener un esmerado servicio atendiendo en todo momento a las normas que al respecto dé el Ayuntamiento, y asimismo deberá cumplir cuantas normas o disposiciones de carácter sanitario-alimentario se dicten para establecimientos públicos.

23.- Cuántas personas presten servicios en el Hogar del Jubilado estarán pulcra y adecuadamente vestidas, debiéndose atender a cuantas instrucciones se reciban de la Junta del Hogar o Departamento de Servicios Sociales a tal respecto. Deberán tener un trato cordial y respetuoso para con los usuarios de las instalaciones

24.- No enajenar, ni gravar los bienes o instalaciones que deban revertir al Ayuntamiento.

25.- No destinar las instalaciones a otras actividades distintas. Necesitará autorización para la instalación de cualquier máquina expendedora de bebidas, golosinas, así como máquinas tragaperras.

26.- No podrá colocar carteles, máquinas o anuncios de carácter comercial o político de ningún género.

27.- Para la realización de obras necesitará autorización expresa del Ayuntamiento.

28.- Tendrá en cuenta la Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias, que prohíbe fumar en dicho establecimiento, así como la venta y puesta a disposición de bebidas alcohólicas a menores de 18 años.

29.- Tal como establece el Decreto 187/2019 del 26 de noviembre del 2019 sobre señalización en materia de bebidas alcohólicas, productos de tabaco y dispositivos susceptibles de liberación de nicotina, los carteles referentes a esta normativa serán colocados en lugar visible.

30.- El Ayuntamiento no tendrá responsabilidad penal, civil o de cualquier otro tipo si el/la adjudicataria no realiza los pagos a los proveedores, se producen intoxicaciones por productos de consumo suministrados y/o por cualquier otra causa.

31.- Irán a cuenta de la persona concesionaria la prensa del bar, revistas, televisión, canales privados y similares, servicios de Internet, etc.

32.- Obligaciones lingüísticas:

- a) Uso de las lenguas oficiales con la ciudadanía: Para garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía, el servicio se deberá prestar en la lengua oficial que elijan.
En cualquier caso, si entre quienes vayan a prestar el servicio, hubiera personas que no estén capacitadas para atender en euskara a la ciudadanía, será responsabilidad de la empresa adjudicataria formar a esas personas para que en el plazo máximo de un año sean capaces de decir y entender en euskera los saludos, precios, nombres de comidas/bebidas, menús y expresiones comunicativas mínimas relacionadas con la prestación del servicio.
El Ayuntamiento realizará el seguimiento de esta obligación.
- b) Paisaje lingüístico: los rótulos, avisos, listas de precios, menús y demás comunicaciones de carácter general deberán estar redactadas en las dos lenguas oficiales, dando siempre prioridad al euskera.

33.- Obligaciones en materia de igualdad:

La concesionaria hará un uso de la comunicación de manera no sexista e inclusiva en toda la documentación, publicidad, imagen o materiales

Sin perjuicio de otras medidas y en virtud de la legislación vigente en materia de igualdad, la persona jurídica designada como concesionaria, independientemente de su estatus jurídico, deberá garantizar obligatoriamente la igualdad entre mujeres y hombres, prestando especial atención a la discriminación salarial.

Todas las personas que vayan a desarrollar el servicio, deberán mantener en todo momento una actitud respetuosa e igualitaria hacia mujeres y hombres, y no adoptarán ninguna actitud



que pueda ser molesta, ofensiva o discriminatoria tanto por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual.

7.- DERECHOS DE LA PERSONA CONCESIONARIA:

Utilizar los bienes cedidos en la forma precisa para el funcionamiento del servicio.

Los demás derechos inherentes a su carácter de persona adjudicataria de una concesión para la utilización privativa y explotación de un BAR-SALON, aunque no estén expresamente determinados en este Pliego.

8.- EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA TENDRÁ LOS SIGUIENTES DERECHOS Y OBLIGACIONES:

- 1.- Fiscalizar a través del Servicio Técnico Municipal la explotación a cuyo efecto podrá inspeccionar el local, instalaciones y la documentación relacionada con el objeto de la explotación, y dictar las órdenes para mantener y restablecer la debida prestación.
- 2.- Imponer a la persona concesionaria las correcciones por razón de las infracciones que cometiera.
- 3.- Rescatar la adjudicación y suprimir la explotación del servicio cuando se den las circunstancias previstas en la normativa de contratos.
- 4.- El Ayuntamiento ostenta la prerrogativa de interpretar el contrato y resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento.
- 5.- El Ayuntamiento no se hará responsable de la falta de pago del adjudicatario a sus proveedores, ni de los deterioros o robos que se puedan cometer en las instalaciones.
- 6.- Los gastos de mantenimiento del local relativos a fontanería, pintura, electricidad, e informática serán a cuenta del Ayuntamiento. Serán también a cargo del Ayuntamiento los arreglos o reparaciones que afecten a la estructura del edificio.
- 7.- La sustitución del mobiliario, maquinaria, etc.... que no tenga reparación posible y se deba a causas ajenas a dolo, culpa, negligencia o defectuosa utilización de los mismos, será a cuenta del Ayuntamiento.
- 8.- Los gastos de mantenimiento y reparación que tengan que efectuarse en los aseos serán a cargo y cuenta del Ayuntamiento. (se excluyen los gastos de papel higiénico, jabón u otros bienes consumibles)

9.- LIBRO DE RECLAMACIONES:

La persona concesionaria deberá poner a disposición de las personas usuarias el Libro de Reclamaciones visado por el Ayuntamiento a efectos de poder efectuar las reclamaciones que consideren oportunas.



ANEXO 1

ACTA DE INVENTARIO DEL MOBILIARIO, MAQUINARIA, Y HOSTELERÍA DEL BAR DEL HOGAR DEL JUBILADO. AÑO 2025

<u>MOBILIARIO:</u>		
13 mesas del Bar	1 revistero de madera	2 cuadros de "Euskal Herriko perretxikoak" (1 de los cuadros tiene el cristal roto)
23 sillas del Bar	5 baldas de cristal en la zona de la barra	1 cuadro (paisaje marítimo)
4 banquetas de barra		
4 paragüeros (2 blancos y 2 negros)	2 focos de luz en zona de barra	equipo de música TEAC-AD 500 para CD.caset, con 2 altavoces
4 percheros de 4 colgadores	3 extintores	1 cubo grande para serrín
1 percheros de 3 colgadores		
<u>JUEGOS</u>		
2 tapetes de cartas		
7 juegos de dominó		

MAQUINARIA:

1 cámara
refrigeradora de pepsi
Cocina:

Frigorífico

Campana extractora
humos

Termo



<u>HOSTELERIA:</u>	CANTIDAD
Vasos agua-vino	4
Vasos de agua	4
Vasos tubo	8
Copas coñac y vermut	9
Copas	1
champán	
Tazas café con leche	12
Tazas café	27
Platillos	32
Teteras	3
Cazos	1
Espumaderas	2
Ceniceros de cristal	0
Vasos de vino- pequeños	5
Vasos de caña	9
cucharillas de café	30